BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

343

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 14koa, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariarena. Honen bitartez, 2011. ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan, ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzko urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren babesean emandako beken onuradun zerrenda argitaratu da.

2011ko uztailaren 18ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan, ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzko urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren babesean, 2011rako deialdia egin zen, prestatzen ari diren gazte ikertzaileei zuzendutako Programako 7 laguntza emateko eta gazte teknologoen prestakuntza programako 9 laguntza emateko.

Aipatutako dekretuaren 13. artikuluko 1. paragrafoan finkatutakoarekin bat eginez, Hautapen Batzordeak proposatuta eta kasuan kasuko ebazpenaren bitartez, deialdiko laguntzak esleitu ziren eta, halaber, horiek interesdunei jakinarazi zitzaizkien.

Urriaren 23ko 185/2007 Dekretuko 13. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoa betez, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2011. ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan, ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzko urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren babesean emandako beken onuradun zerrenda argitaratzea. Zerrenda ebazpen honen eranskin modura gehitu da.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko dute Berrikuntza eta Elikagaien Industriako sailburuordearen aurrean. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 14a.

Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria,
AMAIA BARRENA TELLERÍA.

ERANSKINA

URRIAREN 23KO 185/2007 DEKRETUAREN BABESEAN 2011. EKITALDIAN EMANDAKO BEKEN ONURADUN ZERRENDA

Teknologoak prestatzeko beka programa:

Alberdi Arrieta, Oier
Arnadillo Nieto, Naiara
Blanco Ruiz, Nagore
De Juana Ledesma, Urtzi
Janices Echevarria, Irati
Rodellar Fernandez, Gaizka
Sagartzazu Aizpurua, Izaskun
Texeiro Tarazaga, Ander
Urkijo Alijo, Elene

Doktoratu aurreko beka programa:

Caro Burgos, Mercedes
Garcia Mendiguren, Olatz
Lopez Oceja, Andres
Mardaras Urrutia, Janire
Perez Ochoa, Maria Elena
Uranga Aizpurua, Jon